

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>2/2013</i>	<i>R12/2018</i>	<i>2018-7-27</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena</i>

Ebazpena: 12/2018
Espedientea: 2/2013

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 27an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako hau

ERABAKI DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako 2/2013 zenbakiko gatazkaren inguruan. Arbitraje Batzorde honen aurrean beste gatazka bat tramitatzen ari zen, eratu zenetik, 2004tik, TG SL erakundearen helbide fiskala zein zen zehazteko, eta hori tramitatu bitartean, erakundearen 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren egiaztapen eta ikerketak egiteko eskumenari buruzko gatazka hau planteatu zen. Javier Muguruza Arrese jauna txostengile zen.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) aurkeztu zuen, 2013ko urtarrilaren 14ko idazki baten bidez; hurrengo egunean erregistratu zen Arbitraje Batzordean. 2017ko urriaren 24an tramiterako onartu zen. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) alegazioak egin zituen 2017ko abenduaren 29ko idazki baten bidez, eta idazki hori 2018ko urtarrilaren 4an sartu zen. Espedientearen berri eman ondoren, honako hauek alegazioak aurkeztu zituzten: BFAk, 2018ko apirilaren 23ko idazkiaren bidez (idazki hori hurrengo egunean jaso zen), eta TG SL erakundeak, 2018ko ekainaren 28ko idazkiaren bidez (idazki hori egun horretan bertan jaso zen). ZAEAk ez zuen alegaziorik egin tramite horretan.

2.- Espedienteak honako egitate eta aurrekari hauek ditu:

- a) 2004ko urriaren 10ean eraturako TG SL erakundeak bere helbide fiskala Bilbon (Bizkaia) zuela deklaratu zuen, eta eratu zenetik sozietateen gaineko zerga Bizkaiko Foru Aldundian soilik ordaintzen zuen.
- b) 2012ko urriaren 4an, ZAEAk zuzendari nagusiak gatazka bat planteatu zuen Arbitraje Batzordean (34/2012 zenbakiarekin erregistratu zen). Gatazka horretan eskatu zuen TG SL erakundearen helbide fiskala eratu zenetik Madrilen egon zela deklaratu zedila. Gatazka hori planteatzeko idazkia 2012ko urriaren 5ean erregistratu zen posta zerbitzuan, eta Arbitraje Batzordean 2012ko urriaren 10ean sartu zen.

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

- c) 2012ko uztailaren 18an, hau da, ZAEAk helbide fiskalari buruzko gatazka planteatu baino lehen, TG SLren deklaraturako helbide fiskalean, Bilbon, ZAEako bi funtzionario agertu ziren eta 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari buruzko egiaztapen eta ikerketa jarduketa orokorrak hasi izanaren jakinarazpena eman zioten. Gainera, 2012ko abuztuaren 6an ZAEAREN Ikuskaritzako eskualde bulegoan (Cardenal Marcelo Spínola Kalea, 12, Madril) agertzeko dei egin zioten.
- d) 2012ko uztailaren 30ean, TG SLk idazki bat aurkeztu zuen ZAEako Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Berezian. Idazki horretan zera azaldu zuen: bere ustez, Ekonomia Itunean ezarrita dagoenaren arabera, ZAEA ez zen administrazio eskuduna erakundearen 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren egiaztapen eta ikerketa jarduketa bat egiteko, ahalmen hori Bizkaiko Foru Aldundiari zegokion, eta, horrenbestez, bere ordezkaria ez zen joango Madrilen ZAEAREN ikuskaritzan egiteko dei egin zioten agerraldira.
- e) 2012ko abuztuaren 13an, artean helbide fiskalari buruzko gatazka planteatu baino lehen, ZAEAk berriro jakinarazi zion zitazioa TG SLri, Bilboko egoitzan, eta 2012ko irailaren 6an Madrilgo Ikuskaritzako eskualde bulegoan agertzeko dei egin zioten, lehen esan bezala 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari buruzko egiaztapen eta ikerketa jarduketa orokorrak hasteko. Bigarren jakinarazpen hartan, ZAEAk honako hau azaldu zion: *«Ikuskapeneko administrazio-ahalmenak baliatzeko eskumena, lehenengoz, Espainiako Konstituzioak ematen du, bigarrenez Ekonomia Itunaren Legeak, eta azkenik, Administrazio bakoitzaren araudi propioak. Alde horretatik, helbide fiskala modu objektiboan zehazten da, ez zergapekoak esandakoen arabera, baizik eta Itunaren 43. artikuluan xedatuta dagoenaren zuzeneko aplikazioa dakarten egitate objektiboaren arabera. Lehenago esan denaren arabera, Zerga Agentziak dauzkan datuetatik, Bizkaiko Foru Ogasunari jakinarazi zaizkion datu horietatik ondorioztatzen denez, TUENT-en ekonomia-jarduera 2007. urtean Madril hirian kudeatu zen benetan».*
- f) 2012ko abuztuaren 13an bertan, aurreko paragrafoan azaldu den jakinarazpenarekin batera, TG SLri jakinarazi zitzaion zehapen-espedita ireki zela, ustez Zerga Administrazioaren lanari aurre egiteagatik, eragozpen edo aitzakiak jartzeagatik edo uko egiteagatik, hori Zergei buruzko Legearen 203.1. artikuluan tipifikaturako arau-haustea baita.
- g) 2012ko irailaren 6an, TG SLk berriro ere idazki bat bidali zion ZAEARI, eta orduan ere 2007ko sozietateen gaineko zergari dagokionez Administrazio honek eskumenik ez duela argudiatu zuen; halaber, erakunde baten helbidea Euskal Autonomia Erkidegotik lurralde erkidera aldatzeko Ekonomia Itunaren 43. artikuluan aurreikusitako eta araututako prozedurari eta, desadostasunik egonez gero, 65. artikuluari jarraitu behar zaiola. Idazki horretan, TG SLk ZAEARI eskatu zion egiaztapenerako bidali zizkieten zitazioak indargabetzeko.

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

- h) 2012ko irailaren 13an, betiere bere helbide fiskalari buruzko gatazka planteatu baino lehen, ZAEAK TG SLri beste jakinarazpen bat entregatu zion deklaraturako Bilboko helbidean. Jakinarazpen hartan gogora ekarri zion «*HIRUGARREN aldiz Zerga Agentziaren ikuskapen-organoetan agertu behar duela*», eta 2012ko irailaren 28an agertzeko dei egin zitzaion. Zera iragarri zitzaion: «*Lehen eta bigarren agindeian ohararazi zenez, hirugarren agindei honi arrazoirik gabe jaramonik egin ezean, baliteke abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren, Zergei buruzkoaren 203. artikuluan aurreikusitako erantzukizunak eta zehapenak aplikatu behar izatea*».
- i) 2012ko irailaren 21ean, TG SLren ordezkariak idazkia aurkeztu zuen BFAren. Idazki horretan adierazi zuen ZAEAREN Ikuskaritzaren hiru zitazioak jaso zituela eta zera eskatu zion: «*Beharrezko diren neurriak hartzea, ZAEARI eskatzeko ikuskapen-eskumenen eta ikuskapen-prozeduren araudia aplikatu ditzala, bai eta, bidezkoa izanez gero, zergapeko bati dagokionez eskumena duten administrazioak aldatzeko, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunean eta Ituna garatzeko arauetan xedatuta dagoenaren arabera*».
- j) 2012ko azaroaren 21ean, hau da, bi hilabeteko epearen barruan, ZAEAREN Ikuskaritzak erakundeari egindako zitazioen berri izan zuen unetik aurrera zenbatuta, BFAK ZAEARI inhibizio-errekerimendua igorri zion, eta beretzat erreklamatu zuen TG SLri buruzko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak egiteko eskumena, Arbitraje Batzordean erakundearen helbide fiskalari buruz planteaturako eskumen-gatazka gauzatu bitartean.
- k) ZAEAK errekerimendu horri ez zion erantzunik eman, jaso eta hurrengo hilabetean; horregatik, BFAK ulertu zuenez ZAEAK bere eskumena berretsi zuela, eta beraz gatazka hau planteatu zuen Arbitraje Batzordean 2013ko urtarrilaren 15ean, hau da, hilabeteko epearen barruan, ZAEAK eskumena isilbidez ustez berretsi behar zuen datatik aurrera, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikulua ezartzen duenez.
- l) TG SLren 2007ko sozietateen gaineko zergaren egiaztapenari buruzko inhibizio-errekerimenduari, BFAK ZAEARI 2012ko azaroaren 21ean jakinarazitako horri, ZAEAK ez zion erantzunik eman; ZAEAK, ordea, 2012ko urriaren 5ean, erakundearen helbide fiskalari buruzko gatazka, lehenago aipatu den hori, planteatu zuen. Eta 2012ko azaroaren 28an, artean helbide fiskalari buruzko gatazka hori planteatuta zegoela, ZAEAK TG SLri honako jakinarazpen hau egin zion:

«*2012-11-08an, egiaztapen-espedientea bideratzeko ardura duen 26-600-Q8 Ikuskapen Taldeari jakinarazi zaio eskumen-gatazka bat dagoela, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2012-10-05ean Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordean sustatua, TG SL*

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

erakundeak helbidea Bilbotik Madrilera aldatu izanari buruz, 2004-06-10era arteko atzeraeraginekin.

Ikuskaritza honen iritziz, egitate horregatik, ikuskapen-jarduketan etenaldi justifikatua egon da, Zergak kudeatu eta ikuskatzeko eta zergak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko jardura eta prozeduren Erregelamendu Orokorren 103.f) artikuluan xedatuta dagoena aplikatu behar baita; izan ere, helbide fiskala zehazteari buruz Arbitraje Batzordean planteatutako gatazka ebazteak zuzeneko eragina dauka Gatazka horren emaitzarekin lotuta dagoen egiaztapen-prozeduraren bilakaeran. Beraz, manu horretan xedatuta dagoenaren arabera honako hau jakinarazten da: 2012-07-18an igorritako jakinarazpen bidez hasitako egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak etentzat jotzen dira ikuskapen-jarduketan epea zenbatzeari dagokionez, zergapekoaren helbide fiskalaren zehaztapena Euskal Autonomia Erkidegoko Arbitraje Batzordean gatazkaren mendean dagoelako. Gatazka hori Zerga Administrazioako Estatu Agentziak planteatu zuen 2012ko urriaren 5ean, eta data hori hartu behar da kontuan jarduketan etenaldiaren epea zenbatzen hasteko.

Ikuskaritzak jakinarazi duenez, etenaldi horrek irauten duen bitartean ez da ikuskapen-jarduketarik egingo, horretan jarraitzeko beharrezkoa baita gatazka ebaztita egotea. Horren guztiaren berri eman da ikuskapen-jarduketan epearen konputuaren, Zergei buruzko Lege Orokorren 151. artikulua aipatzen duen horren xederako».

3.- BFAk, gatazka planteatzeko eta alegazioak aurkezteko idazkietan dioenez, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretu bidez onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikulua zera xedatzen du: «*Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitraje Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako*». Horren arabera, ZAEAk TG SLri iragarritako egiaztapen eta ikerketa jarduerak ezin zituen egin 2012ko uztailaren 18an, abuztuaren 13an eta irailaren 13an, ez zeukalako eskumenik, harik eta Arbitraje Batzordeak eta, egokia izanez gero, Auzitegi Gorenak, erakundearen helbide fiskala zuzentzeari buruzko eskumen-gatazka ebatzi arte.

BFAk zera eskatu zion Arbitraje Batzorde honi: «*Deklaratzea ezen TG SL erakundearen 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren egiaztapen eta ikerketa jarduketak egiteko eskumena Bizkaiko Foru Ogasunari dagokiola, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsi zuen horretan xedatuta dagoenaren arabera*».

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

4.- Uzi horren aurrean, ZAEAk bere alegazioetan zera dio: «*Jarduketa horrekin, asmoa ez zen inoiz ere izan besteren eskumenak inbaditzea; izan ere, hasitako ikuskapen-jarduketan bilakaera helbide-aldaketaren ziozko gatazkaren ebazpenaren mendean egon da. Hain zuzen ere, egiaztapen horretan egindako jarduketa bakarrak izan dira zergapekoari jakinaraztea ikuskapen-jarduketak hasi izana eta zergapekoaren helbide fiskalari buruz Arbitraje Batzordean tramitatzen ari den gatazka ebatzi bitartean jarduketa horiek eten izana*».

ZAEAk, halaber, honako hau dio: «*Honelako kasuetan Administrazioen arteko gatazka egoten da zergadunaren helbide fiskalari buruz, eta Arbitraje Batzordean gatazka sortzen da, kontuan hartuta helbidea aldatzeko Itunean aurreikusitako prozeduraren arauak eta hedadura; bada, halakoetan, arriskuan jar liteke preskripzio-unetik hurbil dauden uneetan ikuskapen-jarduerak egiteko lana. Horren haritik, zergadun batek helbide fiskala lurralde batean edo beste batean ezartzeak ez luke kalterik sortu behar Administrazio eskudunak egiaztapeneko administrazio-jarduera egiten duenean. Hau da, Administrazioen arteko helbide-aldaketako prozedurak denboran luzatzea ez litzateke aitzakia gisa erabili behar zerga-iruzurra egiteko, egin beharreko likidazioak egiteko eskubidearen preskripzioa gerta daitekeela aprobetxatuta*».

Eta hau ere dio: «*Gainera, esan behar da, espediente honekin lotura estua daukanez, ZAEAk 26/2012 gatazka planteatu duela uste duelako zergapekoaren administratzaile bakarraren benetako helbide fiskala, aztertutako epean, Madrilen egon zela (gatazka hori gaur egun ebazteke dago), baita 14/2012 gatazka ere, zergapekoaren sozietate talde bereko beste erakunde baten helbide fiskalari buruz. Azken gatazka hori Arbitraje Batzordeak 2015-07-16an ebatzi du, eta zehaztu duenez, erakundeak epe hartan bere helbide fiskala Lurralde Erkidean izan zuen; hori Auzitegi Gorenak 2016-12-20ko epaian berretsi zuen*».

ZAEAk Arbitraje Batzordeari zera eskatu zion: «*Bizkaiko Foru Ogasunaren uzia ezets dadila, eta horrenbestez deklaratu dadila zuzenbidearen araberkoa dela ZAEAk egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak hasia 2012ko azaroaren 28ko jakinarazpen bidez. Hori guztia, 34/2012 gatazka ebatzi ondoren*».

5.- TG SLK, bere alegazio idazkian, honako hau eskatzen du: «*Bizkaiko Foru Aldundiak egindako planteamendua baieستeko ebazpena eman dezala, kontuan hartuta ZAEAk ez zeukala eskumenik ikuskapen-prozedura hasteko, harik eta Arbitraje Batzorde honek zergadunaren helbide fiskalari buruzko gatazka ebatzi arte*».

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Lehenengoz, azertu behar da ea kasu honetan BFAren eta ZAEAREN artean eskumen-gatazkarik dagoen ala ez.

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiatzapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

Horretarako, argitu behar da ea ZAEAK TG SL zergapekoaren aurrean egindako jarduketak, 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari buruzkoak, hau da, eratu zenetik bere helbide fiskala zein lekutan zegoen argitzeko Arbitraje Batzorde honetan planteatutako gatazka ebazteke zegoen une batean egindakoak, erakunde horren gaineko ikuskapen-eskumenaren inbasioa ziren ala ez, eskumen hori une hartan BFari baitzegokion, zergatik eta ordura arte Administrazio hark likidatzen ziolako sozietateen gaineko zerga.

Zera esan behar da: bere alegazio-idazkiaren «ESKATZEN DU» atalean, ZAEAK Batzorde honi eskatzen dio deklara dezala zuzenbidearen arabera dela «ZAEAK egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak hastea 2012ko azaroaren 28ko jakinarazpen bidez». Hala ere, gatazka ez da planteatzen soilik jarduketa horri buruz, TG SLren helbide fiskalari buruzko gatazka planteatu ostean egin zuen jarduketa bakarrari buruz; aitzitik, jarduketa horretan nahiz 2012ko uztailaren 18an, abuztuaren 13an eta irailaren 13an egindako jarduketetan gauzatu zen; hain zuzen ere, ZAEAK data haietan jakinarazi zion erakundeari 2007ko sozietateen gaineko zergaren egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak hasi izana, haren helbide fiskalari buruzko gatazka planteatu baino lehen.

2.- ZAEAK TG SLren 2007ko sozietateen gaineko zergari buruz egindako jarduketan norainokoa aztertzeko, garrantzitsua da egitate bat, ZAEAK bere alegazio-idazkietan eta BFAk planteatzeko eta alegazioak aurkezteko idazkietan azaldu ez dutena, baina Arbitraje Batzorde honek dakiena, Madrilgo Ekonomia eta Administrazio Auzitegiaren ebazpen batean (2017ko urtarrilaren 27ko ebazpena, 28-11703-2013 prozedura). Ebazpen hori TG SL erakundeak berak ekarri zuen bere alegazio-idazkiarekin batera.

ZAEAK TG SLri, Madrilgo Ikuskaritzako Eskualde Bulegoan ager zedin, zitazioak egin zizkion 2012ko uztailaren 18an, abuztuaren 13an eta irailaren 13an, 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari buruzko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak egiteko, eta erakundearen ordezkariak zitazio horiei jaramonik egin ez zenez, nahiz eta bi idazki aurkeztu zituen, bere ustez agerraldi horiek bidezkoak ez zirela ulertzeko arrazoiak azaltzeko, «Zerga Ikuskaritzak zehapen-espeditentia tramitatu zuen, eta espeditente horren ondorioz ezarpen-erabakia jakinarazi zen. Erabaki horretan Zergei buruzko Legearen 203.5.c) artikuluan tipifikatutako arau-hauste astuna egin dela azaltzen da eta gutxieneko zehapena ezartzen da, 10.000,00 eurokoa» (Madrilgo Ekonomia eta Administrazio Auzitegiaren 2017ko urtarrilaren 27ko Erabakiaren –28-11703-2013 prozedura– Hirugarren Zuzenbide Oinarriaren 4. apartatua).

Zehapen horren aurka errekurtsua aurkeztu zen Madrilgo Ekonomia eta Administrazio Auzitegian, eta auzitegi horrek, aipatu den 2017ko urtarrilaren 27ko Ebazpenean (28-11703-2013 prozedura) zera ondorioztatu zuen:

LAUGARREN ZUZENBIDE-OINARRIA: «Orain arte azaldu dena ikusita, Auzitegi honek osorik baiesten du interesdunak alegatu duena, eta aurkaratutako

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

zehapen-erabakia ezeztatzen du, zergatik eta Madrilgo Zergen Ikuskaritzak ikuskapen-jarduketak hasi zituelako bi errekerimendu igorritz helbide fiskala Bizkaiko Foru Aldundian zuen zergadun bati.

Gogora dezagun maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duenaren 19. artikuluko Bat zenbakiko 1. paragrafoan (aurrerantzean Ekonomia Ituna), Zergaren ikuskapena (sozietateen gaineko zerga) izenburuan, zera xedatzen dela:

“Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu zerga-egoitza, lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiak egingo du zergaren ikuskapena”.

Eta 43. artikuluko Sei zenbakiak zera dio:

“Zergapekoen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean auziak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, zergapekoek diotena entzun ondoren. Arbitraje Batzorde hori Kontzertu Ekonomiko honen III. kapituluko 3. atalean dago araututa”.

Horren haritik, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan bidez Arbitraje Batzordeari esleitzen zaizkien eginkizunetako bat da “zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”.

Horrenbestez, eskumen-gatazka bat sortzen denean –aztergai dugun kasuan, antza denez, hori gertatu zen–, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan eta hurrengoetan eta Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen duen uztailaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan aurreikusita dagoenaren arabera jokatu behar da; laburbilduta:

- Ukitutako administrazioek interesatuei jakinaraziko diete gatazka; horrenbestez preskripzio-epea eten egingo da eta hortik aurrera administrazio horiek ez dute inongo jarduketarik egingo.
- Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera eramango dira, bestalde.
- Gatazkak ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan interesatuei entzun egingo zaie. Arbitraje-batzorde horrek hartutako erabakiak betetze-indarrekoak izango badira ere, administrazio-auzigaietako errekurtsioa (besterik ez) aurkeztu ahal izango da Auzitegi Goreneko arlo horretako salan

Argi dago Estatuaren Administrazioak ez dituela errespetatu Ekonomia Itunean bildutako arauak; izan ere, jarduketak egiteari uko egin beharrean, jarraitu egin du interesdunari errekerimenduak egiten. Areago, bere ustez, errekerimendu horiei ez

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

zitzaien jaramonik egin (zergapekoa ez zelako agertu ikuskaritzaren bulegoetan; eta hala ere, interesdunak horretarako bidalitako idazkiak ez ziren kontuan hartu), eta horregatik, zehapen-espeditentea tramitatu zuen, eta horren ondorioz orain aurkaratu den erabakia jakinarazi zen.

Laburbilduta, Auzitegi honek ezeztatzen du aurkaratutako erabakia, estatuko Zerga Ikuskaritzak Ekonomia Itunean ezarritako eskumen-banaketari jaramon egin gabe jokatu duelako».

TG SL erakundeak bere alegazioetan azaltzen duenez, egitate honek agerian jartzen du ez dela egia ZAEAK bere alegazio-idazkian esaten duena, hau da: «*Hain zuzen ere, egiaztapen horretan egindako jarduketak bakarrak izan dira zergapekoari jakinaraztea ikuskapen-jarduketak hasi izana eta zergapekoaren helbide fiskalari buruz Arbitraje Batzordean tramitatzen ari den gatazka ebatzi bitartean jarduketak horiek eten izana*».

Aitzitik, ZAEAREN egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak, etenaldiaren jakinarazpena igorri arte, honako hauek izan ziren: agerraldirako hiru zitazio egitea eta zitazio horiei jaramonik ez egiteagatik 10.000,00 euroko zehapena ezartzea, nahiz eta zergapekoak birritan azaldu zion bere ustez, Ekonomia Itunean oinarrituta, zein arrazoirengatik ez zuen agertzeko betebeharririk.

3.- Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 66. artikulua zera xedatzen du 2. eta 3. zenbakietan:

«Bi. Eskumenak direla-eta gatazkaren bat sortzen denean, ukitutako administrazioek interesatuei jakinaraziko diete; horrenbestez preskripzio-epea eten egingo da eta hortik aurrera administrazio horiek ez dute inongo jarduketarik egingo.

Gatazkek ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan interesatuei entzun egingo zaie.

Hiru. Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributur-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributur-foru berria erabili behar den egunera eramango dira, bestalde».

Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15. artikulua honako izenburu hau dauka: «Gatazkaren sustapena jakinaraztea eta ondorioak». Artikulu horrek xedatzen duenez:

«1. Gatazka sustatzen duen tributur-administrazioak jakinaraziko dio gatazkek eragindako administrazioari, eta, ordutik aurrera, uko egin beharko diote biek

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

gatazkaren xede den gaiaren inguruko edozein jarduketari, harik eta gatazka ebazten den arte.

Era berean, gatazkan dauden administrazioek gatazka sustatu dela jakinarazi beharko diete prozedurako interesdunei, eta jakinarazpen horrek geldiarazte-ondorioak izango ditu preskripzio-epean, edo etete-ondorioak iraungipen-epean, hala badagokie.

Beste kasu batzuetan, ezein administrazioek bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, Arbitraje Batzordeak gatazkaren aurkezpen automatikoa jakinaraziko die interesdunei zein eragindako administrazioei.

2. Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitro Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako».

4.- Hortaz, kasu honetan, ZAEAK, TG SLk eratu zenetik izandako helbide fiskalari buruzko 34/2012 gatazka Arbitraje Batzordean planteatu baino lehen ere, erakundeari 2007ko sozietateen gaineko zergari buruzko ikuskapen-jarduketa orokorrak hasteari buruzko hiru zitazio formal jakinarazi zizkion, eta aktuarioaren aurrean agertzeko epatu zuen.

Jakinarazpenak igorri ez ezik, zitazioei jaramonik egin ez zitzaenez, 10.000,00 euroko zehapena ere ezarri zion. Gero, Madrilgo Ekonomia eta Administrazio Auzitegiak zehapen hori ezeztatu zuen, Estatuaren Administrazioak ez zituelako errespetatu Ekonomia Itunaren arauak.

Eta egiaztapen-jarduketak hasi zirenetik lau hilabete eta hamar egun soilik igaro zirenean, eta zitazioei jaramonik ez egiteagatik TG SLri 10.000,00 euroko zehapena ezarri ondoren, eta Arbitraje Batzordean helbide fiskalari buruzko gatazka planteatu ondoren –ez lehenago–, ZAEAK jakinarazi zion jarduketak eten egin zirela, Ekonomia Itunaren 66. artikuluaurreikusten duenaren arabera.

Horregatik, zera ondorioztatzen da ezinbestean: 2012ko uztailaren 18tik 2012ko azaroaren 28ra bitarteko aldian, ZAEAK BFaren eskumenak inbaditu zituen, zergapeko baten aurrean egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak egin zituelako, hari buruz eskumenik izan ez arren.

Eta horren aurrean ezin da onartu ZAEAREN alegazioa, honako hau dioena: «Honelako kasuetan Administrazioen arteko gatazka egoten da zergadunaren helbide fiskalari buruz, eta Arbitraje Batzordean gatazka sortzen da, kontuan hartuta helbidea aldatzeko prozeduraren arauak eta hedadura; bada, halakoetan, arriskuan jar liteke preskripzio-UNETIK hurbil dauden UNEETAN ikuskapen-jarduerak egiteko lana. Horren haritik, zergadun batek helbide fiskala lurralde batean edo beste batean ezartzeak ez

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
2/2013	R12/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

luke kalterik sortu behar Administrazio eskudunak egiaztapeneko administrazio-jarduera egiten duenean. Hau da, Administrazioen arteko helbide-aldaketako prozedurak denboran luzatzea ez litzateke aitzakia gisa erabili behar zerga-iruzurra egiteko, egin beharreko likidazioak egiteko eskubidearen preskripzioa gerta daitekeela aprobetxatuta». Ezta ZAEAk TG SLri igorritako bigarren zitazioan azaltzen den aitzakia ere, alegia, egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak hasi zituenerako Bizkaiko Foru Ogasunari jakinarazi zizkiola zalantzan jarri zuela erakundeak helbide fiskala Lurralde hartan zuen ala ez, «eta egitate objektibo hori onartzeko eskatu zuela, arlo horretan Ekonomia Itunaren 43. artikuluan aurreikusitako prozedura burutzeko».

Ezin dira onartu arrazoi honengatik: Administrazioen artean helbidea aldatzeko prozedura beren-beregi araututa dago Ekonomia Itunaren 43. artikuluan, eta 66. artikuluan, berriz, desadostasunik egonez gero egin beharrekoa arautzen da. Artikulu horietan ez da inola ere aurreikusten helbide-aldaketaren espedientea osatu baino lehen edo, kasuan kasu, desadostasunik egonez gero, gatazka ebatzi baino lehen, zergapekoari ordura arte likidaziorik egin ez dion Administrazio batek jarduketaren bat egin ahal izatea; zerbait egin ahal izatekotan, gatazka planteatu izana jakinarazi ahal dio, halakorik planteatuz gero, eta hori 66.2 artikuluan aurreikusten da.

Horrenbestez, ZAEAk TG SLren aurrean 2007ko sozietateen gaineko zergari buruz egindako jarduketaren artean zuzenbidearen arabera den bakarra, 2012ko azaroaren 28an gatazka planteatu izana jakinaraztea izan zen. Eta hala ere, gatazka planteatu izana jakinaraztea baliozkoa dela onartu ahal da soilik Itunaren 66.2 artikuluan babespean egindako jakinarazpen gisa, baina ez egiaztapen- eta ikerketa-jarduketa gisa. Izan ere, 11/2018 Ebazpenean (42/2012 gatazka) esan dugunez, gure ustez auzitan jartzekoa da 66.2 artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egiaztapen eta ikerketarako zitazio gisa egin behar izatea, ikuskapen-prozeduraren araudiaren babespean. Ebazpen hartan azaldu genuenez, Ekonomia Itunaren 66.2 artikuluan, aitzitik, jakinarazpen espezifiko baten formula iradokitzen du; lege-lerruna duen manu horrek berak jakinarazpen horri preskripzioa –eta bidezkoa bada, iraungipena– eteteko gaitasuna esleitzen dio. Aldiz, ez dauka egiaztapen-jarduketak hasteko zitazio formal baten antzik, nahiz eta aldi berean jarduketa horiek eteten diren.

5.- Ezin dugu onartu ZAEAREN eskaria ere, hau da, TG SLren helbide fiskalari buruz planteatuta dagoen gatazkaren ostean nahitaez ebatzi behar dela gatazka hau. ZAEAk erakundearen aurrean egindako jarduketak BFAREN eskumenen inbasioa izan ziren, aipatutako gatazkaren ebazpenean azaltzen den ondorioa edozein dela ere; gainera, gatazka hori ebaztean onartuko balitz ere helbidea Lurralde Erkidean egon zela eratu zenetik, ez lirateke inola ere garbituko egindako hutsak, Ekonomia Itunaren 66.3 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. Artikulu horrek dioenez: «*Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera eramango dira, bestalde*».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>2/2013</i>	<i>R12/2018</i>	<i>2018-7-27</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena</i>

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

1.- Deklaratzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak TG SLren 2007ko sozietateen gaineko Zergari buruz egindako jarduketa guztiak, Arbitraje Batzordearen aurrean 34/2012 eskumen-gatazka artean planteatu ez zela erakunde horrek eratu zenetik izan zuen helbide fiskalari buruz egindako horiek, ez zirela izan orduan Bizkaiko Foru Aldundiari zegozkion eskumenen inbasioa, egiaztapen eta ikerketa jarduketak izan zirela, baina horretarako eskumenik ez zuela, eta garai hartan arlo horretan Bizkaiko Foru Aldundiari soilik zegozkion eskumenen inbasioa izan zirela. Eta gatazka planteatu ostean, 2012ko azaroaren 28an egindako jarduketa ordenamendu juridikoak babesten duela soilik 34/2012 gatazka planteatu izanaren jakinarazpen gisa, baina ez egiaztapen- eta ikerketa-jarduketa gisa.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta TG SL erakundeari jakinaraztea.